

# SEAFOOD EXPO GLOBAL 2024

BERTARATZEKO DEIALDIA

- **Data:** 2024ko apirilaren 23-25
- **Tokia:** Fira Barcelona, Gran Vía Venue
- **Maiztasuna:** Urtekoa
- **Norentzat:** Itsasoko produktuen industriako profesionalak
- **Izena emateko epea:** 2023ko irailaren 28
- **Azokaren webgunea:** [www.seafoodexpo.com/global](http://www.seafoodexpo.com/global)

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak, Elikaduraren Euskal Industria kanpoan sustatzen laguntzeko jardueren barruan, **SEAFOOD EXPO GLOBAL 2024** azokan Euskadiko enpresen baterako parte hartzea antolatu du HAZI Fundazioaren bitartez. Azoka Singapur-en ospatuko da 2024ko apirilaren 23tik 25era arte.

# AZOKAREN IZAERA

SEAFOOD EXPO GLOBAL Europako arrantza- eta eraldaketa-industriaren topagunea da. Arraina merkaturatzen duten sektoreei dago zuzenduta, eta mundu-mailan arrantza-azoka garrantzitsuena da. Deialdia urtero egiten da, eta arrantzaren munduko arlo guztietako profesionalentzat baino ez da. Azoka hori Seafood Processing Europe (SPE) azokarekin batera egiten da; azken hori prozesatze-, hozte-, izozte- eta logistika-ekipamenduei buruzkoa da.

Honako sektore hauek ordezkatzeko dituzte: arrain freskoa, izoztua, kontserbak eta prestatutako/prozesatutako arraina, handizkariak, inportatzaileak, esportatzaileak, eraldatzaileak, fabrikatzaileak, banatzaileak, akuikultura, hozkailuak, industria laguntzailea (hotza, enbalajeak, plastikoak, etab.) eta makineria.

Azokara joaten diren bisitariak mundu-mailako arrantza-sektoreko profesionalak, eraldatzaileak, elikadura-industriakoak eta zenbait banaketa-kanaletako profesionalak (inportatzaileak/esportatzaileak, banaketa handia eta HO.RE.CA. kanaleko espezialistak) dira.

SEAFOOD EXPO GLOBAL azoka mundu-mailako topagune garrantzitsuena da arrainaren eta itsaskiaren sektoreko profesionalentzat, eta 155 herrialde baino gehiagotako bisitariak joaten dira. Ez da azoka nazional bat, baizik eta urteko eta mundu-mailako ekitaldi garrantzitsuena arrainaren eta itsaskiaren sektoreko profesionalentzat.

# AZOKAREN IZAERA

## SEAFOOD EXPO GLOBAL 2024 DATUAK

**Erakusketa  
eremua:**

49.339 m<sup>2</sup>

**Ordutegia:**

10.00etatik  
18.00ak arte

**Erakusleak  
2023:**

2.078  
enpresa 87  
herrialdekoak

**Bisitariak  
2023:**

33.200  
144  
herrialdekoak

SEAFOOD EXPO GLOBAL 2023 edizioan 87 herrialdetako 2.078 enpresak hartu zuten parte erakusketari gisa. Erakusketak 49.339 m<sup>2</sup>-ko azalera izan zuen, lau pabiloitan eta barrutiko galerian banatuta. Mundu-mailako itsas produktuen 33.200 eroslek, 144 herrialdekoak, eta hornitzailek hartu dute parte ekitaldian.

Txikizkako salmentako, ostalaritzako eta banaketako bolumen handiko erosleek hartu dute parte ekitaldiko untsezko erosleen programan, horien artean hauek: Aldi (Austria, Erresuma Batua, AEB, Irlanda, Alemania) Bidfood (Lituania, Espainia, Txekiar Errepublika, Italia, Erresuma Batua, Polonia, Hong Kong, Arabiar Emirerri

Batuak, Australia, Herbehereak, Eslovakia), Carrefour (Frantzia, Belgika, Errumania), Costco Wholesale (Erresuma Batua), Delhaize (Belgika), Food Lovers Market (Hegoafrika), IKEA (Suedia), Hellofresh (Alemania, Danimarka, Erresuma Batua), Kesko (Finlandia), Lidl (Espainia, Erresuma Batua), Makro (Espainia, Portugal, Txekiar Errepublika), Mercadona (Espainia), Metro (Turkia, Frantzia, Alemania, Bulgaria, Kroazia, Eslovakia), Sodexo (Erresuma Batua), Subway (Erresuma Batua), Sysco (Frantzia, Irlanda, Erresuma Batua), The Cheesecake Factory (AEB) eta Whole Foods Market (AEB).

# PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Egoitza Euskadin duten eta Eusko Jaurlaritzaren **Elikagaien Industrien Erregistroan** inskribatuta dauden **enpresa ekoizleak** baino ezingo dute parte hartu ekitaldi honetan.

## AZOKAREN AURRETIK

- Enpresa erakusketariak ordezkari bat bidaltzeko konpromisoa hartuko du eta kuota ordainduko du. Beraz, ezinezkoa izango da ekintza horretan baja ematea Euskadiko pabiloian sartu dela jakinarazi ondoren.
- Ezinbesteko kasuetan, eta horietan baino ez, Eusko Jaurlaritzak eskubidea izango du enpresa erakusketariak aurkeztutako arrazoiak aztertu eta, behin-behinean, ordaindutako zenbatekoaren zati bat itzultzeko.
- Enpresek nahitaez egon behar dute muntaketa egunean, adierazten zaien orduan, salgaiak jasotzeko eta standetako apainketa-lanak amaitzeko, inaugurazioaren aurretik eta beharrezko aurrerapenarekin.

## AZOKAN ZE HAR

- Enpresa bakoitzak bere standa zaindu beharko du azokako egun guztietan eta bere irekiera-ordutegi osoan.
- Azoka amaitzean, produktu guztiak behar bezala jaso beharko dituzte eta standeko elementuak jasotako egoera berean entregatu.

## AZOKAREN ONDOREN

- Enpresa bakoitzak ebaluazio-inkesta bete beharko du.

# PARTE HARTZEKO EREDUA ETA KOSTUA

## PARTE HARTZEKO EREDUA

2024ko edizioan, Eusko Jaurlaritzak parte hartuko du pabiloi batean, non parte hartu nahi duten sektoreko enpresak egongo diren. Stand indibidual bat izango dute, 9 - 12 m<sup>2</sup> ingurukoa.

Eusko Jaurlaritzaren parte-hartzea interesa duten enpresen kopuruaren mende egongo da. Ez bada betetzen enpresen gutxienerako kopuru hori, Eusko Jaurlaritzaren parte hartzea bertan behera geldituko da.



## PARTE HARTZEKO KOSTUA

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak EAEko lehen sektoreko produktuak eraldatu eta merkaturatzen dituzten enpresen parte-hartzea sustatuko du.

### GARRANTZITSUA:

Stand indibidualen esleipena izena emateko dokumentuak jasotzen diren hurrenkeraren arabera egingo da, eta ezinbestekoa izango da **ordainketaren egiaztagiria**, zure enpresak **zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak** egunean dituela egiaztatzen duten agiriak bidaltzea eta **izena emate formularioa** betetzea.

Lehentasuna emango zaie **Euskadiko Elikadura Sistemako Enpresa Jardunbide Egokien Kodeari** atxikita dauden enpresei.



### • Stand INDIBIDUALA:

4.200 € + %21 BEZ = 5.082 €

# EUSKO JAURLARITZAREKIN PARTE HARTZEA

## IZENA EMATEKO EPEA: 2023KO IRAILAREN 28

Leku kopurua mugatua denez, gomendatzen dugu lehenbailehen izena emateko formularioa betetzea eta ordainketaren frogagiria, zure enpresak zerga eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak bidaltzea  
Jon Zabaletari: [jzabaleta@camaragipuzkoa.com](mailto:jzabaleta@camaragipuzkoa.com)

Enpresa parte hartzaileen hautaketa izena emateko dokumentuak jasotzen diren hurrenkeraren arabera egingo da eta lehentasuna emango zaie **Euskadiko Elikadura Sistemako Enpresa Jardunbide Egokien Kodeari** atxikita dauden enpresei.

Eskabidea osorik egon dadin eta kontuan har dadin, honako hauek bete beharko da:

### IZENA EMATEKO FORMULARIOA BETE

Formularioan eskatzen den informaziotik, datuak zehazki transkribatuko dira zokaren katalogo ofizialerako eta prestatzen diren gainerako elementu promozionaletarako.

[IZENA EMATEAK](#)

### KUOTAREN ORDAINAGIRIA BIDALI

Kontu zenbakia: Laboral Kutxako  
**ES49 3035-0179-61-1791069900**  
HAZIren izenean.  
Laboral Kutxako BIC-a: CLPEES2MXXX

Kontzeptua: "Enpresaren izena +  
SEAFOOD EXPO GLOBAL 2024".

- HAZI Fundazioko Finantza Departamentuak dagokion zenbatekoaren faktura igorriko dizue, izena emateko epea amaitu eta parte hartzea baieztatu eta gero.

# EUSKO JAURLARITZAREKIN PARTE HARTZEA

## GARRANTZITSUA

Izena ematea formalki egindakotzat jotzeko, inskripzio-formularioa behar bezala beteta izan beharko dute, eta zinpeko aitortpena eta ordainagiria bidali beharko dituzte, gainerako dokumentuekin batera. Inskripzio-data, ondorio guztietarako, inskripzioa ordaindu zen eguna izango da.

Izena emateko inprimakia betetzeak EZ du esan nahi enpresak Eusko Jaurlaritzaren standean parte hartu behar duenik; izan ere, gutxieneko eta gehieneko enpresa-kopuru bat egon behar da izena emateko. Eusko Jaurlaritzak jakinaraziko du inskripzioa onartu dela.

FAKTURA, HAU DA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO STANDEAN SARTU IZANAREN JAKINARAZPENA JASO ONDOREN, PARTAIDETZARI UKO EGITEN DION ENPRESAK % 100 GALDUKO DU.

Ezinbesteko kasuetan bakarrik gordeko da enpresak aurkeztutako arrazoiak baloratzeko eskubidea eta, hala badagokio, ordaindutako zenbatekoaren ehuneko bat itzultzekoa.

Enpresek ordaindutako zenbatekoak itzultzeko kasu hauek baino ez dira kontuan hartuko:

- Enpresa erakusleek eskatutako gunea Azokaren Antolakuntzak Eusko Jaurlaritzari esleitutako gunea baino handiagoa bada, hautatu ez diren enpresek eskubidea izango dute aurrez izena emateko kuota itzultzeko.
- Eusko Jaurlaritzak halabeharrez edo nahiko partaiderik ez dagoelako parte hartzea bertan behera uzten badu, enpresek eskubidea izango dute ordaindutakoaren %100 jasotzeko.

# ESKAINITAKO ZERBITZUAK

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak, HAZIren bitartez, zerbitzu hauek eskainiko ditu:

## 1 Pabiloia mantentzea

Eusko Jaurlaritzak arduratuko da pabiloia mantentzeaz eta beharrezko zerbitzuak kontratatzeaz (ura, elektrizitatea, garbiketa...)

Potentzia-mugak daude stand bakoitzeko, eta, erakusketari batek horiek gainditzen baditu, kostua enpresa erakusketariak ordainduko beharko du.

## 2 Hotz kamerak

Eusko Jaurlaritzak koordinatuko du hotz-ganberen kontratazioa. Erakusketari bakoitzak finantzatuko du zerbitzu hori.

## 3 Merkantziaren garraioa

Erakutsi beharreko salgaiak batera bidaltzeko aukera eskainiko da, izendatutako garraiolari ofizialak adierazten duen puntutik.

Zerbitzu hori norbanakoak kontratatu beharko du, eta garraio-enpresak zuzenean fakturatuko dio zerbitzua erabiltzen duen erakusketari bakoitzari.

## 4 Azokaren katalogo ofizialean sartzea

Eusko Jaurlaritzak beharrezko izapideak egingo ditu parte hartzen duten enpresa guztiak behar bezala ager daitezen azokaren katalogo ofizialean, Euskadiren pabiloiaren barruan. Horretarako, [izena emateko formularioan](#) jasotako informazioa erabiliko du.

## 5 Bidaia eta ostatua

Jarduera honetan ez dira sartzen lekualdatze- eta ostatu-gastuak. Hala ere, Saila enpresen esanetara dago bidaia eta ostatua koordinatzen laguntzeko, baldin eta enpresa erakusketariak eskatzen badu.